

EHBILDU UDAL TALDEAREN MOZIOA: OSAKIDETZAKO HERRIETAKO
ANBULATEGIEN ITXIERAREN AURKAKO ETA OSASUN SISTEMA PUBLIKOA
INDARTZEA ESKATZEKO

Osasun Sistema Publikoan, Osakidetzan gertatzen ari dena ez da berria. Azken urteotan Eusko Jaurlaritzak hartutako erabakien ondorio da:

- Etenik Gabeko Arreta Guneak, PAC delakoak, itxi dira, edo ordutegiak murriztu dira.
- Osasun etxeetan izugarrizko profesional gabezia dago. Eta ondorioz, profesional batek, gainerakoen agendak bete behar izaten ditu edo egunerokotasunean 45 kontsulta izaten ditu. Egoera horretan ezinezkoa da pazienteei kalitatezko arreta bermatzea.
- Hainbat eta hainbat osasun etxetan bizitza osoan izandako zerbitzuak ixten edo murrizten ari dira.
- Kontsulta presentzialak lortzea gero eta zailagoa izaten da. Atzerapenak nabarmen areagotu dira.
- Adinekoen eta kronikoen jarraipenerako gero eta zailtasun handiagoak.
- Osasun sustapena bertan behera geratzen joan da edo ez da behar bezala garatu.

Halaxe berresten dute Osakidetzako langileek, egiten ari diren protestetan. Horietan, indar handiz entzuten dira aipaturiko eskaerak. Eta horiekin bat egiten dute osasun langileek eta Osakidetzan ordezkariak duten sindikatu guztiek.

Hau guztia ez da pandemiaren errua, ez zen pandemiarekin hasi. Murrizketak eta planifikazio eza, eta osasun sistema publikoa pribatuaren mesedetan ahultzeko estrategia aspaldiko kontuak dira. Osasun sistema publikoan eman diren atzerapausoak gero eta nabarmenagoak izan dira, bereziki 2018tik gaurdaino. Eta honen guztiaren ondorioak herritarrek (pazienteek) jasaten dituzte, are gehiago herri txikietan.

Errealitate horrek gurean ere badu bere isla: Oñatiko anbulatorioak pandemiaren aurretik, neguan 20:00ak arte eta udan 17:00ak arte ematen zuen zerbitzua, eta orain, murrizketen ostean, 17:00etara eta 15:00etara mugatzen da hurrenez hurren. Horretaz gain, Arrasateko ospitaleko 4. unitatea itxiko da, udaro bezala (alegia, ginekologia, obstetrizia eta pediatriako unitateak). Aipaturiko zerbitzuak 2. solairura jaitsiko dira, eta horrek 2. unitate erdia ixtea dakar. Beste hitz batzuetan esanda, traumatologia eta kirurgia zerbitzuak erdira murrizten dira hiru hilabetez, eta horrek ebakuntzetarako itxaron zerrendak luzatzea eragiten du.

Pandemian denok ikusi dugu zein garrantzitsua den kalitatezko lehen mailako arreta izatea, baina, sistema hori indartu beharrean, Jaurlaritza kontrakoa egiten ari da. Duela aste batzuk Gotzone Sagardui osasun sailburuak argi eta garbi esan zuen lehen arretako gune batzuk itxiko direla, eta horietako batzuetan soilik erizaintzako profesionalak artatuko gaituztela, eta ospitaleen espezializazioan sakontzen jarraituko duela. Hau da, gaur egun eskaintzen diren zerbitzu batzuk itxi eta ospitale bakar batean eskainiko dituztela. Horrek, herritarrek behartuko ditu medikura joateko distantzia handiagoak egin behar izatera.

Hainbat herri txikitako herritarrek medikura joateko beste herri edo hiri batera joan beharko dute. Hori ez da aldaketa kultural bat, oinarrizko eskubide baten aurkako eraso bat baizik, pertsona guztiok

kalitatezko arreta sanitario publikoa jasotzeko eskubidea dugulako, eta hori da orain arriskuan dagoena.


Hori dela eta, Oñatiko udaleko udalbatzak:

1.- Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio urte osoan zehar, uda sasoiaren barne, herri honetako osasun sistema publikoak eskaintzen dituen zerbitzuak bermatu ditzala.

2.- Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio lehenetsunez mediku egoiliarren kontratazio -eredua aldatu dezala, kontratu egonkorrak eta lehen arretan euren garapen profesionalerako ibilbidea ahalbidetuko dutenak bermatuz.

Halaber, gainerako osasun profesionalen kontratazio baldintzak hobetzeko xedearekin, aztertzea Osakidetzan kontratazio irizpideak aldatzea, beti ere egonkortasuna eta garapen profesionala sustatuz, horrela Osakidetza erakargarriago bilakatzeko eta indartzeko.

3.- Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Lehen Arretako eskaintzen duten mediku, erizain eta gainerako osasun profesional kopurua handitu dezala. Diziplina anitzeko lantaldeak sortuz, non beste profil profesional batzuk txertatuko diren, hala nola geriatrak eta fisioterapeutak.



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **SIERa48b2231-271f-4bfe-baef-7c5938b255c2**

Dokumentu elektronikoko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:
<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=05910>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=05910>